

QIA-QUALITY INNOVATION AWARD

Berrikuntzari buruzko nazioarteko lehiaketa: aukera paregabea euskal erakundeentzat



QUALITY
INNOVATION
AWARD

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA

Lankidetzarekin:

innobasque
berrikuntzaren
euskal agertzia agencia vasca
de la innovación

EUSKAL UNIBERTSITATE
SISTEMAREN KALITATE
AGENTZIA
CALIDAD DE SISTEMA
UNIBERTSITARIO VASCO **UNI BASQ**

AUKIBIDEA

- 2 ▶ Zer da Quality Innovation Award?
- 2 ▶ Zer da Quality Innovation bat?
- 2 ▶ 2018ko sari banaketa Pekinen
- 3 ▶ Nola parte hartu QIA 2019 lehiaketan
- 4 ▶ Euskadiren emaitzak QIA 2018 lehiaketan
- 5 ▶ QIA n parte hartzearen onurak, protagonisten ustez
- 7 ▶ Bidaideak
- 8 ▶ Euskal erakunde finalistak eta irabazleak 2018ko edizioan

ZER DA QUALITY INNOVATION AWARD?

Quality Innovation Award lehiaketa Excellence Finland abiarazi zuen 2007an, Finlandian, produktu, prozesu, antolamendu eta abarretan berrikuntzak sortzea eta garatzea bultzatzeko. Orduz gero, Kalitatea, Bikaintasuna eta Berrikuntza sustatzen duten entitateak batzen joan dira; hain zuzen ere, Estonia, Suedia, Letonia, Txekia, Hungaria, Israel, Kazakhstan, Lituania, Txina, Errusia, He-goafrika eta Espainiakoak, CEX-Centros de Excelenciaren bidez, eta, Euskadin, EUSKALITen bidez.

EUSKALIT, hain zuzen **QUALITY INNOVATION AWARD (QIA)**, sariaren Zuzendaritza Batzordeko kidea da, eta lehiaketaren tokiko fasea antolatzen du, **Unibasq** eta **Innobasque** lankidetzan.

Kide guztien **helburu** komuna da parte hartzen duten **erakundeen eta herrialdeen lehiakortasuna areagotzen laguntzea**.

ZER DA QUALITY INNOVATION BAT?

5 ezaugarri hauek dituen berrikuntza da:

- **Berritasuna:** Bezeroen, gizartearen edo ingurumenaren beharrak modu berritzailean edo bereziki berrikusita asetzen eta gainditzen dituen produktua, zerbitzua, soluzio teknologikoa, antolamendu aldaketa... da.
- **Erabilgarritasuna:** Dagoeneko ezarri da, eta argudio sendoak aurkezten ditu errealitatean berrikuntza hori ezartzeko moduari buruz. Berrikuntza praktikoa eta baliagarria da lortu nahi diren onurak lortzeko.
- **Ikaskuntza:** Ideia edo aurkikuntza berri batean oinarrituta dago, lehendik zegoen ezagutza batetik abiatuta, edo garapen sistematikoko prozesu baten emaitza moduan sortu da.
- **Bezeroaganako orientazioa:** Bezeroen edo beste interes talde batzuen gaur egungo edo etorkizuneko beharrei erantzuten die, edo behar horiek asetzen zein gainditzen ditu.
- **Eraginkortasuna:** Berrikuntza horrek bezeroengan, pertsonengan, gizartean edo ingurumenean lortzen duen arakastaren emaitzak eta adierazleak aurkezten ditu.

2018ko SARI BANAKETA PEKINEN

Bost euskal enpresak jaso zuten **Quality Innovation Awarda (QIA)**, berrikuntzaren nazioarteko aitortza, 2019ko otsailaren 27an **Pekinen** egindako ekitaldian.

Osakidetzako ESI Tolosaldeak jaso zuen Awarda berrikuntza potentzialaren kategorian; **Eusko Trenbide Sareak**, Prize saria, sektore publikoaren kategorian; **Iberdrolak**, Prizea, enpresen kategorian; **Ega Master-ek**, Prizea, enpresa txiki eta ertainen kategorian; eta **A&B Bioteknologia Laborategiek**, Prizea, berrikuntza arduratsuaren kategorian.

ESI Tolosaldeak, bestalde, saria jaso du, **Creta proiektuagatik**, zeina Erretinopatia Diabetikoaren baheketa prozesurako software baten garapenean dagoen oinarrituta; **Eusko Trenbide Sareak** ere bai, **ikusmen artifizial bidezko trenbide pasaguneen ikuskapenagatik**; **Iberdrolak**, erdi tentsioko sareetan **matxurak lokalizatzeko eta okerrak ezaugarritzeko** berrikuntzagatik; **Ega Masterrek**, neurrira egindako **4.0 ingeniaritzako soluzio industrialetako negozio ildo berria** sortzeagatik; eta **A&B Bioteknologia Laborategiek**, hidrokarbueroek kutsatutako lurrazpiko uraren in situ bioerremediaziorako **produktu biologiko** bat sortzeagatik.

Lehiaketa honetan finalista izan ziren, halaber, **Imatek Advanced Technologies** eta Osakidetzako **ESI Ezkerraldea Enkarterri-Gurutzeta** enpresak.

2018ko edizioan, **nazioarteko 464 hautagaitza** aurkeztu ziren guztira, **12 herrialdeetatik**; **horietako 29, Euskadikoak**. Hautapen prozesuen ostean, **54 nazioarteko finalista izan ziren, eta, azkenik, 24k jaso zuten sari hau** (16 Prize winners eta 8 Award winners).

Irabazle izan ziren praktika onak gure **Kudeaketa Bilatzailean** ikus ditzakezu.



NOLA PARTE HARTU QIA 2019 LEHIAKETAN

Euskadi mailako lehiaketan parte hartzeko data gakoak hurrengoak dira:

- Hautagaiak parte hartzeko aurretiko izen-emateko epea: **maiatzaren 2a - ekainaren 28a**
- Hautagaitzak aurkezteko epea: **uztailaren 1a - irailaren 16a**
- Hautagaitzen ebaluazio prozesua: **irailaren 30a - urriaren 30a**
- Lehiaketaren emaitzen jakinarazpena: **urriaren 30a**
- Sarien ematea Kudeaketa Aurreratuaren Galan: **abendua (Vitoria-Gasteiz).**

Euskadi mailan haien hautagaitzekin irabazle suertatzen diren erakundeak automatikoki finalista bihurtuko dira nazioarteko lehiaketan, urriaren 30a eta abenduaren 12a artean izango dena. Kasu honetan, kontuan izateko data gakoak hurrengoak izango dira:

- Hautagaitzak aurkezteko epea, ingelesera itzulita: **urriaren 30a - azaroaren 11a**
- Hautagaitzen ebaluazio prozesua: **azaroaren 17a - abenduaren 12a**
- Lehiaketaren emaitzen jakinarazpena: **abenduaren 13a - 2020ko otsailaren 6a**
- Sarien ematea Nazioarteko Galan: **2020ko otsailaren 5 - 6a (Tel Aviv, Israel)**

Ebaluazio prozesua oso sendoa da, eta eragile anitzek baloratzen dituzte hautagaitzak:

- **Ebaluatzaileak:** dokumentazioa aztertu, eta kategoria bakoitzeko 0-3 berrikuntzarik nabarmenenak hautatzen dituzte, ebaluatzen diren 5 ezaugarrietan oinarrituta, eta Indarguneei eta Hobetzeko Arloei buruzko txosten bat egiten dute.
- **Adituak:** irizpen bat ematen dute, hautatutako 3 proposamenen berrikuntza maila baloratuz.
- **Epaimahaia:** ebaluatzaileen txostena eta adituen irizpena kontuan hartuta, **kategoria bakoitzeko Berrikuntza irabazlea** hautatzen dute (kategoriarren batean saria eman gabe gera daiteke).

Kategoria bakoitzeko berrikuntza irabazle denak automatikoki finalista izango dira nazioarteko fasean. Han, nazioarteko epaimahai batek berriz ebaluatuko ditu hautagaitza guztiak, eta Quality Innovation Awardaren mundu mailako berrikuntza irabazleak aukeratuko ditu.

Informazio gehiago eskuratzeko eta hautagaitzen izena emateko:

www.euskalit.net/eu/quality-innovation-award.html



EUSKADIREN EMAITZAK QIA 2018 LEHIAKETAN

ESI TOLOSALDEA – OSAKIDETZA - INTERNATIONAL AWARD (Berrikuntza potentziala)

Berrikuntzaren titulua: **ERRETINOPATIA DIABETIKOAREN BAHEKETA AUTOMATIKORAKO SOFTWARE BATEN GARAPENA**

EGA MASTER S.A. - INTERNATIONAL PRIZE (Enpresa ertaina)

Berrikuntzaren titulua: **SEGURTASUNAREN ETA ERAGINKORTASUNAREN ARLOAN NEURRIRA EGINDAKO SOLUZIO INDUSTRIALEN INGENIARITZA, BALIO HANDIKO INDUSTRIARENTZAT**

IBERDROLA - INTERNATIONAL PRIZE (Enpresa handia)

Berrikuntzaren titulua: **BERRIKUNTZA MATXURAK LOKALIZATZEN ETA OKERRAK EZAUGARRITZEN, TEN-TSIO ERDIKO SARETAN**

A & B BIOTEKNOLOGIA LABORATEGIAK - INTERNATIONAL PRIZE (Berrikuntza arduratsua)

Berrikuntzaren titulua: **HIDROKARBUROEK KUTSATUTAKO LURRAZPIKO URAREN IN SITU BIOERREMEDIAZIORAKO PRODUKTU BIOLOGIKOA**

EUSKAL TRENBIDE SAREA - INTERNATIONAL PRIZE (Sektore publikoa)

Berrikuntzaren titulua: **IKUSMEN ARTIFIZIAL BIDEZKO TRENBIDE PASAGUNEEN IKUSKAPENA**

ESI EZKERRALDEA ENKARTERRI CRUCES - INTERNATIONAL FINALIST (Gizarte eta osasun sektorea)

Berrikuntzaren titulua: **TOXINA BOTULINIKOAREN INFILTRAZIOAN GIDARITZA EGITEKO 3D INPRIMATZE TEKNOLOGIA**

IMATEK - INTERNATIONAL FINALIST (Micropyme & Start Up)

Berrikuntzaren titulua: **SMART MANHOLE IoT FOR CITIES**

Gainera, EUSKAL FINALISTAK honakoak izan dira:

- PROTON ELECTRÓNICA SLU (Micropyme & Start Up)
- HETEL (Hezkuntza)
- PEDAGÓGICA SAN PRUDENCIO (Hezkuntza)
- ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEA UPV/EHU (Hezkuntza)
- UPV/EHU (Sektore publikoa)
- DIRECCIÓN DE ATENCIÓN A LA CIUDADANÍA E INNOVACIÓN Y MEJORA DE LA ADMINISTRACIÓN (EUSKO JAURLARITZA) (Sektore publikoa)
- DURANGOKO UDALA – AUKERA BERDINTASUNERAKO SAILA (Gizarte eta osasun sektorea)
- ESI DONOSTIALDEA – OSAKIDETZA (Gizarte eta osasun sektorea)
- ESI ARABA – OSAKIDETZA (LORAKO UNITATE FUNTZIONALA (Berrikuntza potentziala)

QIAn PARTE HARTZEAREN ONURAK, PROTAGONISTEN USTEZ

EGA MASTER



Iñaki Garmendia, CEO Industrialia

“ QIAn parte hartzeak gure lehiakortasuna hobetzen laguntzen digu, **erakundeko kultura berritzailea sustatuz eta indartuz**. Bestalde, gure berrikuntzen ikusgarritasuna eta **nazioarteko aitortza** handitzea ahalbidetzen digu, bai eta ebaluazio profesional eta horiengandik independentea lortzea ere, eta horrek berrikuntzak hobetzen lagunduko digu. Aldi berean, maila globaleko alderaketa egin dezakegu, eta beste batzuegandik ikasi maila nazionalean eta nazioartean. Laburbilduz, erabateko esperientzia; oso interesgarria ikuspegi guztietatik ”.

IBERDROLA



Ana Yurena García, Espainia Berrikuntza taldean, Berrikuntza teknikaria

“ Arrazoietako bat da Iberdrola barruan egiten diren **I+G proiektuak balioan jarri** ahal izatea, eta baita egiten diren berrikuntza proiektuen inguruan **aitortza nazionala eta nazioartekoa** jasotzeko aukera izatea ere, etorkizunean jarduera eta proiektu berriak egiteko bultzada ematen baitute.

Iberdrolak lehiaketa honetan izan duen esperientzia oso asegarria izan da, neurri handi batean, EUSKALITen aldetik jaso dugun laguntza eta erraztasun guztiei esker. Horregatik, eskerrak eman nahiko genizkioke. Gainera, **beste enpresa batzuekin harremanetan jartzeko** aukera eman digu; berrikuntza haien negozio eredueta lehentasunezko elementua duten enpresekin, hain zuzen ”.

A&B LABORATORIOS DE BIOTECNOLOGÍA



Francis Barbero, Bioteknologia Arduraduna

“ Gure parte hartzea hiru faktorek bultzatu dute: lehena soziala da, **gizartearekiko konpromisoari begira** eta geuk baliozkotzat dugun hura –eta beste erakunde batzuentzat ere baliozkoa izan daitekeena– komunikatzeko daukagun etengabeko borondatea. Bigarrenik, ikaskuntza, hautagaitza aurkeztea bera **barne hausnarketa** eta ebaluazio **prozesu** bat baita, zeinetan prozesua berriz ere zalantzatan jartzen dugun. Horrek egindakoa birplanteatzea ahalbidetzen digu, eta aurreragoko proiektu batzuk hobetzeko ideiak sortzen dira. Ebaluatzaileen txostena edukitzeko aukerak ere hobekuntza arlo berriak identifikatzen laguntzen digu, eta, gainera, parte hartzeak prozesuari begira erneago egotea eragiten digu, eta gainerako hautagaiei modu sakonagoan erreparatzen diegu, haien berrikuntzak aintzat hartuz, eta horiek gure jarduerarako inspirazio iturri izanez. Eta, hirugarrenik, kanpo aitortza bat edukitzeko aukera dago. Lortuz gero, motibatzailea izango da, eta gure merkatuan hobe kokatzen ahalbidetuko digu ”.

EUSKO TRENBIDE SAREA (ETS)



euskal trenbide sarea



Aitor Garitano, Zuzendari orokorra

“ Esperientzia oso positiboa eta aberasgarria izan da. Aurkeztu genuen proiektua ongi garatuta zegoen, eta aitortza jasotzeak ilusioa piztu du erakunde osoan. Eta dirudenez, **aire freskoa ekarri, eta pertsona guztien animoa eta konpromisoa sendotzen du** ”.

IMATEK



Itziar Santxez, CEO

“ Erronka bat da, eta halaxe bizi dugu. Parte hartzeak behartzen gaitu **sortzen diren ideia guztien gainean hausnartzera**, eta ebaluatzeraz zein bilaka daitekeen produktu, zein den bere artearen egoera eta egikaritzeko posibilitatea, aukera... harik eta patente bilakatu arte. Esperientzia oso ilusionagarria da. **Taldeak,**

beraz, egindako lanaren aitortza moduan bizi du esperientzia, taldearen batasuna eta hobetzeko gogoia sendotuz.

Enpresaren irudiaren ikuspegitik prestigio aitortza bat da, ibilbide garrantzitsua duena eta ahalbidetu diguna gure **lehiakideetatik desberdintzea, ikusgarritasun eta onura garrantzitsua emanaz** ”.

ESI TOLOSALDEA OSAKIDETZA



Marisa Merino, zuzendari kudeatzailea

“ Saria lortu dugun bi aldiak esperientzia sinestezinak izan dira. Kanpoko errekonozimendu batek, eta, gainera, maila honetakoak, animoa ematen du gure erakundearen berrikuntzaren eta kalitatearen ildoan lanean jarraitzeko. Gainera, oso interesgarria da eremu askotako **esperientzia arrakastatsuetatik ikastea**, eta haien lider eta bultzatzaileak ezagutzea, beti berritzaile eta kartsuak, aurrera jarraitzeko energia ematen dizu ”.

NABIGATZEN JARRAITU:

Erakunde hauetako **berrikuntzaren kudeaketa** ezagutzen jarraitu nahi baduzu, joan zaitez **8. orrira** edo aukeratu gehien interesatzen zaizun gaia:

- BERRIKUNTZARAKO ESTRATEGIA
- PERTSONEN EGITEKOA
- EZAGUTZAREN ETA PATENTEEN KUDEAKETA
- ZAINZA TEKNOLOGIKOA

BIDAIDEAK

MIKEL YANG

Basque Trade and Investment



Nola laguntzen die Eusko Jaurlaritzak, SPRIren bidez, Txinan nazioartekotutako euskal enpresei?

Nazioartekotzearen Euskal Agentzia - Basque Trade & Investment Eusko Jaurlaritzaren sozietate publiko bat da, hots, SPRIren nazioarteko zerbitzuen eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren garapen eta Azpiegitura Saileko Nazioartekotze Zuzendaritzaren arteko bat egitearen emaitza. Kanpo sare oso indartsu bat dauka, nazioarteko adituek osatua, eta 20 urtetik gorako esperientzia 70 herrialde baino gehiagotan. 16 bulego propio ditugu, eta zerbitzua nahieran eskaintzen dugu enpresaren esportazioak eta nazioartekotzea sustatzeko, merkatu estrategikoetan kokalekua hartzeari zuzendutako jarduerak bultzatzeko, eta ezarpen komertzial eta produktiboetan asistentzia teknikoa errazteko; bestalde, erakunde aldeaniztunek finantzatutako proiektuetan ere laguntza ematen dugu.

Zein da, zure ustez, berrikuntzaren etorkizuna, Txinan?

Txinako Alderdi Komunistaren 2012ko XVIII Biltzar Nazionalak argi eta garbi adierazi zuen "produktibitate soziala eta oro har indar nazionala hobetzeko laguntza estrategikoa" dela "berrikuntza zientifikoa eta teknologikoa, eta herrialdearen garapen orokorraren erdigunean" kokatu behar dela. Aipatzen da zeinen garrantzitsua den txinatar ezaugarriak dituen berrikuntza independentearen bideari jarraitzea, bai eta berrikuntzan oinarritutako garapen estrategia bat abiaraztea ere.

Global Innovation Index 2018 zerrendan, Txina lehen aldiz kokatu zen 20 ekonomia berritzaileen artean, 22. izatek (2017) 17. izatera (2018) pasatuz. Diru sarrera ertainak izanik, berrikuntza globalaren indizearen top 20an sartu den herrialde bakarra da. Lorpen honen arrakasta ezin da bereizi, inola ere, ekonomia berritzaile baten garapenerako jabetza intelektualaren sistemaren orientazio eta laguntzatik.

JUAN CARLOS MORLA

SONDER CONSULTING SLko CEO

25 urtetik gorako esperientzia du aholkulari, prestatzaile eta ikuskatzaile gisa, kudeaketa ereduen, berrikuntzaren eta iraunkortasunaren alorretan. Hainbat ziurtagiri emaileren ikuskatzailea izateaz gain, KNOWINN EUSKALITeko zenbait modulutan prestakuntza ematen du, eta Kudeaketa Eredu Aurreratuaren eta Quality Innovation Awardaren ebaluatzailea da (Euskadin eta Espainian).



Aholkulariaren edo kudeatzailearen ikuspegitik, zein dira, zure ustez, erakundeetan berrikuntzaren kudeaketa on baten gakoak?

Berrikuntza zeharkako jardueratzat interpretatu behar da: kudeaketaren bikaintasunean eta ezagutzaren babesean oinarritzen da, erakunde osoari eragiten dio, eta merkatuan, edo hala badagokio, gizartean eragina izatea du azken helburu. Hori dela eta, zaintza teknologikoko eta adimen lehiakorreko estrategia baten hedapena eta aktibo ukiezin kudeaketarako politika egoki bat elementu gakoak dira jarduera berritzaile arrakastatsu baterako.

Eta QI Ara etorrira, zein lirateke hautagaitza arrakastatsu baterako gakoak?

Berrikuntza onek ezer gutxi behar dute haien potentziala agerian uzteko:

- 1) Argiak izatea azaltzean zein premia edo erabilerari erantzuten dioten, eta nola detektatu dituzten erabilera objektiboko ingurune batekin lerrotatuz (pazienteak, erabiltzaileak, bezeroak, gizartea, etab.).
- 2) Deskribatzea nola garatu den proiektua amaierako emaitza lortzeko, bere garapenean hartu duen konplexutasunari helduz: dena ez da ondo ateratzen lehenengoan!
- 3) Kudeaketa erremintetarako laguntza, osotasun guztiari fidagarritasuna emanez.
- 4) Eragin positibo elkartuen deskribapen on bat, hauek baitira benetako berrikuntza baten aurrean gaudela definitzen dutenak. Baina kontuz, mota guztiak eraginak deskribatu behar dira (ekonomikoak, sozialak, etab.), balioko inguruneetara eramangarriak direnak barne. Horrela, berrikuntzak bere eragin, eduki eta potentzial guztia erakusten du.

EUSKAL ERAKUNDE FINALISTAK ETA IRABAZLEAK 2018ko EDIZIOAN

QIAn aitortpena jaso duten euskal erakundeek galdera gako hauei erantzun diete:

BERRIKUNTZARAKO ESTRATEGIA

EGA MASTER

EGA Masterrentzat gure proiektuaren elementu gakoa eta estrategikoa da berrikuntza, baldin eta guztien artean beste bat izatetik nor jakin, berezi, desberdin eta baita beharrezko izatera igarotzeko behar den bereizkuntza lortuko badugu. Era berean, merkatu eta bezero berrietara iristeko giltza ere bada, prezioak bigarren mailako aldagai bihurtzeko aukera emanda. Esan nahi baita, funtsezko faktorea da denboran iraungo duen errentagarritasun eta hazkuntza maila handiagoa lortzeko.

EGA Masterrek, hain zuzen, Berrikuntza eta Nazioartekotzeko oinarritzko zutabe estrategikoak uztartzuz, elkarrekin erlazionatuz eta atzera elikatuz lortu du krisialdi honetan bere historiako emaitzarik onenak lortzea, eta lortu du, halaber, II. Mundu Gerraz gero ekonomiak izan duen garairik okerrenetako bati neurritzko baikortasunez aurre egitea eta egiten jarraitzea. Era berean, munduko herrialde gehienetara esportatzen duen Espainiako enpresa industrial da (150etik gora herrialde), 200 patente

inguru ditu erregistratuta, munduko fabrikatzaileetan aurrena da, eta, oraingoz, Acetilex ildoak garatzen duen bakarra.

IBERDROLA


Iberdrolarentzat, berrikuntza aldagai estrategikoa da, eta garatzen ditugun negozio eta jarduera guztiei eragiten die.

Iberdrolako negozio guztien I+G+B jardueren helburua da, zehazki, jarduera horiek modu koordinatu eta egituratua gauzatea. Helburu horretarako, I+G+B Kudeaketa Sistema bat daukagu, I+G+B jardueretan irizpideak modu global eta eraginkorrean sistematizatzeko eta homogeneizatzeko aukera ematen duena.

Iberdrolak egituratu egin du bere I+G+B Kudeaketa Sistema, eta, hala, Berrikuntza Zuzendaritzak eredu global bat emango die Negozio Unitateei; izan ere, Iberdrolaren ustez, berrikuntza prozesuak homogeneoa, sistematikoa eta bakarra izan behar du erakunde osoan.

A&B BIOTEKNOLOGIA LABORATEGIAK

Gure berrikuntza produktueta (segurtasun handiagoa eta ingurumenaren hobekuntza) eta prozesuetan (tekno-



logia garbiak, bizitza zikloaren analisia, lan arriskuen prebentzioa, etab.) ikus daiteke. Berrikuntza estrategia hau arrakastatsua izan da, gure ustez, erakundeak lotu dituen emaitza orokorrak direla tarteko: urteik urtera hazten doa, eta gaur egun, nazioartean hedatzeko prozesuan dabil, bete-betean.

Arlo honetan eraginkortasun eta eragingarritasunarekin lotutako etengabeko hobekuntzaren bila genbiltzanez, 2007. urteaz gero sistematizatu egin dugu berrikuntza, UNE 166002 eta ISO 14006 ziurtagiriekin bermatutako kudeaketa ereduen bidez. Bi ziurtagiri horiek oinarritzat daukagu gure produktuen berrikuntza eta garapen jarduerak behar bezala gauzatzeko. Sistema honek guztiak jardun denen eraginkortasuna ziurtatzen digu, berrikuntzaren arloan. Eta, halaber, arrisku gutxiago izateko modua ematen digu.

EUSKO TRENBIDE SAREA (ETS)

ETS, hain zuzen, Euskadiko erantzukizun autonomikoen azpiegitura kudeatzen duen erakundea da, eta, horrenbestez, berrikuntzarekin lotutako hainbat proiektu garatu eta horietan parte hartzen du etengabe, Euskadiko

trenbide sistemaren garapena bultzatzen jarraitzeko helburuarekin, betiere, kalitate, segurtasun, eraginkortasun ekonomiko eta iraunkortasun maila gorenekin.

Etengabeko hobekuntza betiereko erronka da gure zereginetan, eta arazo teknikoak konpontzeko premiak ekarri ohi du, sarri askotan, berrikuntza. Alderdi horri erreparatuz, proiektuaren ebazpen logikotik eratorritako mugak baino ez ditugu.

IMATEK

Enpresa teknologikoa garenez, berrikuntzarekin lotutako urteko helburu batzuk ditugu gure Plan Estrategikoaren baitan, alderdi ekonomikoari ez ezik, lehiarako hobekuntzari, irudiari eta bereizkuntzari ere eragiten dietenak.

Berrikuntza, gainera, gure Kudeaketa Aurreratuko Ereduan ere txertatuta daukagu, eta aginte koadrotik jarraitpena egiten diegu I+G+Brekin zerikusia duten adierazleei eta horien etengabeko hobekuntzari.

Erakundearen baitan I+G+B kudeatzeko, mekanismo formal sistematizatuak erabiltzen ditugu.



ESI TOLOSALDEA OSAKIDETZA

Osasun Sistemaren inguruneak etengabeko aldaketak izaten ditu. Biztanleriaren zahartzeak eta gaixotasun kronikoen gorakadak bultzatuta, estrategia berritzaileak diseinatu eta abiarazi behar izaten ditugu, arretaren kalitatea hobetzeko eta iraunkortasuna bermatzeko.

Erronkei erantzuteko asmoz, estrategikotzat daukagu berrikuntzaren kudeaketa, eta erakundearen kudeaketa erudian jaso izan dugu 2015eko urtarrilean sortu zenez gero. Kudeaketa sistemaren ikuspegi orokorra edukitzeak, zeinak erreferentzia askoren baldintzak biltzen dituen (kalitatea, berrikuntza, giza baliabideak, ingurumena, gizarte erantzukizun korporatiboa...), asko laguntzen du guztien premiak orekatzen.

PERTSONEN EGITEKOA

EGA MASTER

Erakundearen berrikuntza sustatzen dugu, honako hauen bidez:

- Erakundeko **pertsonak** maila guztietan **parte hartuz** eta liderrek erakundearen sustatuz.
- **Berrikuntza** eta sormena **aitortuz**.
- Urtero egiten diren **Prestakuntza Planetan** prestakuntza ekintzak planifikatzen dira, zeintzuk, berrikuntzaren eta sormenaren bidez, hobekuntzara dauden bideratuta.
- Erakundeko pertsonen **egitekoaren aldizkako balorazioan** baloratu beharreko arloetako bat da, hain zuzen, erakundeko ekimena edota parte hartzea, hainbat kanalez bidez (iradokizunak, bilerak...).

Era berean, **gure bezero eta hornitzaileen sormen eta berrikuntza ezagutza** erabiltzen dugu berrikuntzak detektatzeko eta hobekuntzak ezartzeko baliabide gisa, horiekin etengabeko harremana izanez eta gure "I+G+B" Prozesuan euren parte hartzea bultzatuz.

IBERDROLA

Iberdrolak berrikuntza eredu ireki eta deszentralizatu dauka, zeinak ahalbidetu digun pertsonak, kolaboratzaile teknologikoak, erakunde industrialak eta instituzio publikoak biltzen dituen ekosistema bat eratzea, eta, hala, balioa sortzea, ezagutza transferitzea, talentua erakartzea eta espiritu ekintzailea sustatzea. Horretarako,

EGA Solutions

EGA Solutions, empresa del **grupo EGA**, ofrece servicios de ingeniería y soluciones para la **Industria 4.0** que permiten mejorar la **seguridad, productividad y eficiencia** de nuestros clientes

EGALOC

Solución de geolocalización de equipos y productos (tanto terminados como en curso) en plantas productivas.



EGAWARE

Sistema de gestión de herramientas y útiles que permite un mejor control de acceso a las herramientas, así como de la entrada y salida de las mismas durante los turnos de trabajo.



Smart STATION

Soluciones a medida para implantar sistemas de Lean Manufacturing, 5S & Poka Yoke.



EGA KANBAN

Basado en la tecnología EGAWARE, ofrecemos solución específica para almacenes Kanban.



www.egasolutions.com

berrikuntza kulturarekin eta talentuarekin lotutako beste-lako ekimen batzuez gainera, Iberdrolaren Unibertsitate Programa daukagu. Programa horretan, Iberdrolak lan egiten duen herrialdeetako unibertsitate nagusiekin ari gara lankidetzan, hainbat ekimenen bitartez ezagutza transferituta eta gazteen talentua erakarrita, elkarren arteko lotura indartzeko helburu lehenarekin.

A&B BIOTEKNOLOGIA LABORATEGIAK

Daukagun berrikuntza tresnetako bat sormena da; zehazki, ekarpenetarako eta pentsamendu kritikorako testuingurua sortzen duten sistematiken bitartez, bai eta erronkak bilatzeko, eta sormena eta ideien sorkuntza pizteko ere.

Eta hori guztia, hain justu, **“I+G+B Kudeaketa Sistemak”** berak bultzatutako lankidetzazko ingurune batean. Sormen teknikan prestakuntza espezifikoak duten langileak ditugu, eta “El Bombillero” izeneko sormen espazio bat ere badugu, erakundeko pertsonak –eta batzuetan, baita kanpokoek ere– sormen tresnak aplikatu ditzaten, hainbat arlotako erronkak ebazteko.


EUSKO TRENBIDE SAREA (ETS)

Trenbidearen munduan eta ETSren baitan dauden ezin konta ahala diziplinak kontuan hartuta, berrikuntza kudeatzeko izendatutako pertsonen talde espezifiko bat dugu, non erakundeko zuzendari guztiek parte hartzen duten. Zuzendariek, I+G+B arloko arduradun teknikoekin batera, berrikuntzarekin zerikusia duten alderdi guztiak koordinatzen, dinamizatzen eta kudeatzen dituzte.

IMATEK

Taldean egiten da lan, inolako aurreiritzirik gabe, eta langile guztiek dute aukera euren ideiak hiru hilean behin sistematikoki adierazteko. Lan ingurunean zein kanpoan bilerak egiten dira (talde bidaiak eta elkarrekin egindako irteerak), non modu ez formal batean, garatzeko interesgarriak izan litezkeen ideiak aipatu eta biltzen diren. Gainera, lorpen guztiak aitortzen dira, eta helburuak betez gero, lantalde osoa zoriontzen da.

SOFTWARE DEVELOPMENT for AUTOMATED SCREENING for DIABETIC RETINOPATHY



Osakidetza



EUSKO TIPIGRAFIA SOSTENIBO VALDO

ESI TOLOSALDEA OSAKIDETZA

Sormena eta berrikuntza bultzatzen duten metodologiak eta tresnak erabiltzen ditugu; esaterako, Design Thinking edo Visual Thinking. Helburu horri begira, kanpoko eragileekin ere aritu gara elkarlanean, sukaldaritzan, musikan edo antzerkian oinarritu, eta, hala, sormena sustatuz. Arlo honetan izandako lopenak aitortzen ahalegintzen gara, pertsonak sortutako ezagutza zabaltzen lagunduz.

EZAGUTZAREN ETA PATENTEEN KUDEAKETA

EGA MASTER

Gure Konpetentziak Kudeatzeko Sistemaren bidez eta garapen propioaren aldeko apustua bultzatuz, jabetza intelektuala babesten dugu, eta hori ispilatuta geratzen da erregistratuta ditugun patenteetan (200etik gora). Horren osagarri, konfidentzialtasun kontratuak egin ditu-

gu aliatu eta kolaboratzaile estrategikoekin, lankidetzan garatutako produktu eta soluzio teknikoekin lotuta.

IBERDROLA

Iberdrolak badu eskuliburu bat: **Iberdrola taldearen esku hartze industrialak babesteko praktika onen eskuliburua**. Horrek eragina dauka berrikuntza jarduera edo proiektuak gauzatzen dituzten, eta, horrenbestez, babes mekanismo baten premia izan dezaketen langile guztiengan.

Berrikuntza Zuzendaritzan erregistro bat dugu, eta horri esker, jarraipena egiten diegu Iberdrolan dauden patente eta erabilgarritasun ereduak, zeinak gauzatutako proiektuetatik eratorritakoak diren.

A&B BIOTEKNOLOGIA LABORATEGIAK

Erreferentziatutako dugun UNE 166.002 arauan xedatutako baldintzen arabera kudeatzen dugu ezagutza. Hodeiarekin egiten dugu lan, eta hala, ezagutza partekatzea eta informazio garrantzitsurako sarbidea sustatzen ditugu.



Ezagutzaren kudeaketa babestea oso garrantzitsua da, eta aktibo handia erakundearen baitan. Langile guztiok konfidentziasun klausulak sinatzen ditugu; eta antzeko dokumentuak sinatzen ditugu, halaber, berrikuntza proiektuetan lankide ditugun aliatu, bezero, zentro teknologiko edo bestelako erakundeekin.

EUSKO TRENBIDE SAREA (ETS)

I+G+Bren elkarrekiko erlazio koordinatu horretatik eratorritako estrategia dugu, ezagutza partekatzeke jarrera irekiarekin, eta, betiere, gizartearen zerbitzura dagoen erakunde publikoa garenez, daukagun izaerarekin bat etorrita. Orain arte, ez dugu inolako erregistro edo patenterik kudeatzen dugun sarea.

IMATEK

I+G+B Kudeaketa Unitateak, zehazki, lortutako emaitzak babesteko eta ustiatzeko aukera aztertzeke beharrezkoak diren irizpideak xedatzen ditu proiektu bakoitzerako. Horretarako, honako ezaugarri hauek hartzen dira erreferentziatzat:

- Teknologia transferitzeko barne mekanismoak definitzea.
- Transferentzia mekanismoak ezartzea eta zehaztea.
- Transferentzia Teknologikoko erabakiak definitzea.
- Emaitzak babesteko aukerak identifikatzea.
- Aurkikuntza berrietarako patenteen prozedurak adieraztea.
- Emaitzen konfidentziasun mailak zehaztea eta horiek ziurtatzeko neurriak erabakitzea.

ESI TOLOSALDEA OSAKIDETZA

Ezagutza Kudeatzeko Eredu bat daukagu, eta horren helburua da profesionalen ikaskuntza eta ezagutzaren transmisioa bultzatzea, herritarren osasun eta ongizatea sustatzen eta babesten laguntzeko. Eredu hori erakundearen kudeaketa sisteman txertatuz gero, amaierako emaitzetan duen eraginaren balorazioa egin liteke.

Gure jarduera nagusitik kanpoko beste produktu batzuk edo patenteak lortuz gero, horiek guztiak Osasun Ikerketarako Institutuek kudeatuko dituzte, era hauetako gaietan laguntza ematen baitigute.

ZAINZA TEKNOLOGIKOA

EGA MASTER

Teknologiaren kudeaketa kontzeptua, gure aburuz, gure erakundea gaitzen duten jarduera guztiak maneiatzeko prozesua da, barnean sortutako teknologiarik zein hirugarrenetatik eskuratutakoari ahalik eta erabilerarik eraginkorrena emateko, bai eta teknologia hori produktu berrietan (produktuaren berrikuntza) eta sortzeko eta merkaturatzeko moduan (prozesuaren berrikuntza) txertatzeko ere. Horri guztiari esker, ezagutzak areagotuko ditugu, eta hori baliagarria zaigu gure berrikuntza gaitasunak hobetzeko eta lehiarako abantailak eskuratzeko, eta, hala, gure bezeroen eta lehiakideen erreakzioei aurrea hartu, eta gure Politika eta Estrategia egia bihurtzeko.

IBERDROLA

Berrikuntza Zuzendaritzatik zaintza eta prospektiba teknologikoaren zereginak sustatzen ditugu, taldearen negoziointzako aukerak eta erronkak identifikatu ahal izateko, eta prozesuetan edo zerbitzuetan berrikuntza premiak detektatzeko, merkatuko aldaketa teknologikoei aurrea hartuz.

A&B BIOTEKNOLOGIA LABORATEGIAK

Urte hasiera guztietan, erakundearen testuinguruari eta gure inguruko egoera aldakorrei buruzko azterlan bat egiten dugu, interes taldeak kontuan hartuz, eta kontuan hartuz, halaber, zaintza prozesuaren bitartez tokiko inguruneari zein ingurune orokorrari buruz gauzatzen dugun azterketa. Horiek guztiek informazioa eskuratzeko eta gure kudeaketa sistemari balioa ematea dakarkigute, eta, azken batean, ardatz garrantzitsua dira erabaki estrategikoak hartzeko, oraingo zein etorkizuneko erronkak identifikatzeko eta erabakiak hartzeko prozesua hobetzeko.

Duela pare bat urte, beste euskal erakunde batzuekin proiektu bateratu batean parte hartu ondoren, zaintza teknologikoko sistema berri bat abiarazi genuen, lhobek argitaratutako gida batean oinarrituta. Sistema berri honi esker, eraginkorragoak gara, hobeto egituratuta gaude eta emaitza hobek lortzen ditugu. Gainera, bi urtean behin merkatuaren joerei eta teknologiaren bilakaerari buruzko prospektiba txostenak egiten ditugu.

EUSKO TRENBIDE SAREA (ETS)

Beste trenbide administrazio batzuekin eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko hainbat erabilerekin dugun harremana oso arina da, eta hamaika harreman eta foro izaten ditugu. Horietan guztietan, ezagutzak, joera nagusiak eta aurrerapen teknologikoak partekatu, eta sinergiak lantzen ditugu.

IMATEK

Zaintza teknologikoa sistematizatuta daukagu, erakundearentzat baliagarriak diren informazio fokalizatuak eskuratu, aztertu, hedatu eta ustiatzeko.

Era berean, kanpoan sortzen doazen berrikuntzei buruzko alertak eratzea da asmoa, baldin eta horiek gure sektorean aukerak edo mehatxuak sortzeko modukoak badira. Zaintza sistemaren ikuspegi estrategikotik merkatuaren bilakaerari erreparatzeko eta hura aztertzei aukera izango dugu, bai eta konpetentzia, materialak, teknologiak

eta beste aztertzei ere. Horrenbestez, gure berrikuntza politikari begira ezinbesteko tresna izango da.

ESI TOLOSALDEA OSAKIDETZA

Identifikatutako ezagutza liderrei eta proiektu arduradunei esker eskuratzen da informazioa, eta baita Osakidetzak, Osasun Sailak, EUSKALITek, Ikerketa eta Berrikuntza Biosanitarioko Institutuek, elkarte zientifikoek, elkargo profesionalak eta osasunaren, kudeaketaren zein berrikuntzaren arloko orrialde espezifikoek emandako informaziotik ere. Gainera, Benchmarkingari esker, gure ohiko lan eremutik kanpoko arloak eta jarduerak aztertzei aukera izaten dugu; betiere, ikuspegi berriak emango dizkiguten planteamenduak, ideiak edo esperientziak bilatuz.

Berriki, Ikerketa eta Berrikuntza Biosanitarioko Institutuen bidez, Zaintza Teknologikoko tresna berri bat eskuratu dugu, eta aurki hasiko gara gure erakundean hori erabiltzen.



QUALITY
INNOVATION
AWARD

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA

www.euskalit.net/eu/quality-innovation-award.html